

Begoña Kapape



Kontxa du izena, garai batean Mikel izan bazen ere. Haurtzaro arrunta izan zen berea, harik eta zerbait gertatzen ari zitzaiola ohartu zen arte. Orduan ez zen koloreak bereziteko gai, ezta goiza gauetik. Denborarekin konturatu zen beste aldea erakargarria zitzaiola, baina ez zekien nola zeharka zezakeen muga. Bere sentimenduei izkin egiten ahalegindu zen, “gizon” nortasuna lantzeari ekinenez. Besteekin lehia aritu behar izan zuen zinez matxo, koadrilako matxoena, izateko. Baina barrutik bestelakoa zen eta oskol batekin estali zuen hura. Jolasteari eta jendaurrean maitatzeari utzi zion. Bizimodu isila eramaten hasi zen. Ez zion inori berarenagana gerturatzen uzten, hogei urterekin gaur egun duen bikotea, bere alabaren ama eta bere

sostengurik garrantzitsuena, ezagutu zuen arte: “Biok batera ekin genion bidaia honi eta biok batera amaituko dugu hura”. Kontxak sentitzen zen moduari jarraituz, hau da, emakume moduan bizitzen hasteko garaia zela erabaki zuenean hasi zen bidaia. Goizero ispiluan islatuta ikusten zuenarekin nazkatuta, aldaketa unea iritsia zela ulertu zuen. Erabakia hartuta zegoen. Hortik aurrera, lehen urratsa Aldartera jotzea izan zen. Elkarre horretan, hormonak hartzen hasteko jarraitu beharreko prozeduraren berri eman zioten: lehenik eta behin, medikuarengana joan behar zuen; ondoren psikiatrarengana diagnostiko bat egin ziezaion, eta azkenik endokrinoarekin egon behar zuen. Azken horrek egindako hormona odol analisiaren os-

tean, bigarren mailako ezaugarriak aldatzen lagunduko zioten tratamenduari ekingo zion.

Kontxa kexu da Osakidetzak transexualitatea bere zabaltsunean jorratzen duen unitaterik ez duelako. “Bilbon diren lau trans horiei hormonak ematen dizkien endokrinoarengana joatearena ez dute naturaltasunez hartzen, isilpean mantentzen dituzte horrelakoak”, azaldu du.

Gorpuzkera ez ezik, mundua antzemateko eta sentitzeko modua aldatu diote hormonek. Arras sentikorra da orain gauzen eta gertaeren aurrean. “Oskola eta lehen neraman bizimodu bikoitza galtzen ari naiz”. Baginoplastia (bagina berregitea) egitea aztertzen ari da orain. Ez du bere burua transexualizat jotzen, ez du terminoa batere gogoko: “emakumea naiz eta lesbiana”.

Kontxa emakume ausarta eta irmoa da. Ez du urratsik ematen alde zurretik emandakoen emaitzekin ziur egon arte, izan ere “inguru sozialak min handia eragin diezazuke. Horregatik zenbait gauza ez ditut oraindik egiten, hala nola nire alabaren bila eskolara joatea. Familia bat dut eta harekiko betebeharrak ditut; ez dut haiek sufritzerik nahi”. Zoriontsu izaten, irribarre egiten hasi dela aitortzen du. “Urteak ziren keinu hori nire aurpegitik desagertua zela”. Baina pena merezi izan du muga zeharkatu izana. Den moduan, hau da, emakume baten moduan bizi, sentitu, jantzi, hitz egin eta barre egin nahi du, besterik ez. F